


Zapping egiteko erlojua

Japoniako Casio etxeak magnetoskopio edo telebistako programa k aukeratu, soinua erregulatu, aparatua piztu ala itzali eta beste hainbat eginkizunetarako erlojua prestatu du. Aparatu-mota normal guztientzat balio du eta Europako kabletiko telebistak maneiatzeko 1995.ean egongo da prest.



karratuko 95 kiloko kargari eusteko gai da. 180 kilometro orduko haizeen eragina ere jasan dezake.

Hangare eramangarri hau, matxuraturako hegazkinak dau den lekuan konpondu ahal izateko diseinatu da. Izan ere, munduko zenbait aireportutan ez baita mantentimendurako behar besteko azpiegiturarik egoten. Matxuraturako hegazkinari batez ere beroak kalte egin diezaiok, hegazkineko materialek zabal-kuntzak izan ditzaketelako. Hegazkin-ospitalea dela esan daiteke, beraz. Aurreko aldean barruan konpondu nahi den hegazkinaren burualdea sartzen da eta atzeko aldean isatsaldea.



Polipropilenoazko erretxinaz egin-dako plaka hauek 48x24 zentimetrokoak dira eta zortzi tope aldagarri dituzte. Mailetegi osoa ala zati bat hartzen dutela ipin daitezke. Objektuentzako topeak etzanda ala altxata nahierara jar daitezke.

kes injeneru kaliforniarrek bere "Deep Flight" izeneko aparatua. Urpekari honen lehen prototipoa jadanik probatzen ari dira eta azkenekoak 1,5 tona pisatuko ditu. Barnean pertsona batentzako lekua izango du.

Hegazkin-karparik handiena


Hegazkinentzako hangare hau moduluka egin dago eta askatuta hegazkinen hegaldaldi batean garraia daiteke nahi den aireporturaino. Egitura metalikoaz eta olanazko estalkiaz gain ez du beste inolako materialik.

Egiturak guztira 105 tona pisatzen ditu eta 72,5 metro luze da. Aurrean 43 metro zabaleko hiru arku metaliko txiki ditu eta 76 metro zabaleko beste hiru atzean. Aurreko arkuen altuera 16,5 metrokoa da eta atzekoena 27 metrokoa. Guztira 4.500 metro karratuko azalera estaltzen du eta elurra egiten badu ere, metro



Automobiletarako mailetegi berezia

Automobiletan askotan izaten dira arazoak mailetegian. Karga bertan ipini eta gero automobila martxan doanean batera eta bestera desplazatzen hasten dira



objektuak. Konponbide bat, bi zentimetro lodi eta 330 gramo pisuko polipropilenoazko plaka bereziak ipintzea da. Plaka horietan pieza batzuk ipini eta kendu egin ditezke, meiletegira sartutako edozein objekturi eusteko tope gisa.

Itsaspeko hegazkina

Itsas hondoa miatzeko aparatu tripulatuak orain arte 4.000 metroko sakoneraraino heldu dira. Robotez hornitutako makinak berriz, 6.500 metroraino, baina pertsona

11.000 metroko sakoneraraino (munduan den handieneraino) 1996. urtean jaitea espero da. Filipinetako itsasoan dagoen failan daude sakonera horiek eta pertsona batek gidaturik hantxe murgiltzea espero du Graham Haw-

Urezko zerra zapatentzat

Asturri ibaiaren inguruan kokatuta zapatagintzan diharduten zortzi industriak Puyo herrian zentru informatizatua muntatu berria dute. Ur-zorrotadaz eta ordenadorez lagundurik funtzionatzen duen zentru honetan, industria bakoitzak bere zapata-ereduak digitalizatu ahal izango ditu. Gero, bi ebaketa-mahai izango dituzte: bata ehunak ebakitzeko eta bestea ur-zorrotadaz larrua ebakitzeko.

